

ASTEAZKENEKO OTOITZA

JAUNGOIKOAREN ERREINUAREN ALTXORRA

Mateo 13:44

«Zeruetako Erreinua, soroan ezkutatutako gordailuaren antzekoa da. Aurkitzen du gizon batek eta gorde egiten du. Pozez beterik joaten da, saltzen ditu dauzkan gauza guztiak, eta soroa erosten du.»

Bideoa “Ezkutuko altxorra”

https://www.youtube.com/watch?v=2CsBMVi_9f4

ZER IRAKATSI NAHI DIGU ALTXOR EZKUTUAREN PARABOLAK?

Arraroa bada ere, parabola honetako gai nagusia ez da dirua; fedea da, sinesmena da. Bibliak esaten duen legez, Aitarekin altxorra aurkitu dugu, benetako altxorra! Gure bihotzetara barkamena, bakea eta maitasuna ekarriz bizitza aldatzen diguten horietarikoa.

Nork ez du altxorren batekin amets egin! Benetako altxorrarekin! Piraten istorioetan agertzen diren horietariko altxorrekin! Kutxetan etorri eta zabaltzerakoan inork imajinatzen ez duen bitxi, urre, zilar eta harribitxi beteriko kutxekin. Inoiz imajina ezin izango duzun kutxekin!

Gaurko parabolak, altxorra aurkitu zuen gizonari buruz hitz egingo digu.

Imajina dezagun zelako poztasuna litzatekeen lurrak emandako soldatarekin familia mantendu behar duen pertsonarentzat, horrelako altxorra aukitzea. Eguraldiaren ezbeharren eta uzta txarraren mehatxupean bizi den pertsonarentzat.

Bere arazoak konponduko lirateke, umeen zapaten erosketa, etxeko alokairua...ez lirateke gehiago denak batera gela batean bizi beharko. Orain beraien etxea izango lukete. Harrigarria da altxor batek familiaren ekonomian lagun dezakeena. Argi dago, inork ezin duela horrelako aurkikuntzarik egin eta berdin berdin bizitzen jarraitu.

Bere arazoak konponduko lirateke, umeen zapaten erosketa, etxeko alokairua...ez lirateke gehiago denak batera gela batean bizi beharko.